

# Bakarka ezin da

(Hernaniko bakardadearen mapa II)

Kale irakurraldia

Apirilak 8, 19:30

Goiz Argi Tabernan (Nafar kalea, 19)

Irakurraldian **Bitoriano Gandiagaren “Hiru gizon bakarka” (1974)** liburuaren pasarteak irakurriko ditugu, gehi Itxaro Bordaren beste bat (2024), jolas moduan berez sortutako mekanikari jarraituz (ikus behean), eta Merceroren “La cabina” (1972) filmari aipamena eginez. **Aldez aurretik testu bat aukeratu!**

## Irakurleak

TESTUA	IRAKURLEA(K)
1	Beñat Iturrioz
2	Marta
3	
4	conny
5	Antonio
6	ibon
7	jaxo
8	Garbiñe
9	Oxan
10	Anari
11	Mikel M.
12	Txaro
13	Axpi

TESTUA	IRAKURLEA(K)
1	Beñat Iturrioz
2	Marta
14	
15	
16	Iñaki Enbil
17	Anartz
18	Maitane Galarraga
19	Jaione
20	arantza_etxeberria
21	Damian
22	juanbau
23	Josu L
24	Ana Galarraga
25. BIGARREN GUTUNA BITORIANO GANDIAGARI (Itxaro Borda)	Malores

## Afaria

Ez dugu alde zuretik antolatuko. Bukatutakoan kaxkoan zerbait hartzeko aukera dago.

## Mekanika

**1. Hasiera:** 3 taldeak osatu eta liburuxkak banatu (taldekide bakoitzak liburuxkan bilduta pasarte guztiak eskura izango ditu).

**2. Bakardadearen mapan:**

- Liburuxkan ezarritako ordena jarraituz, parte hartzaile batek testua irakurtzen du, hutsunean "HIRUSTA" edo beste hitz/soinu bat esanez.
- Ondoren hiru taldeek hutsuneko hitza asmatu behar dute, 5 aukeren artean bat hautatuz. Erabakia hartzeko denbora mugatua dago: kabinako telefonoak pi-pi-pi egiten duenean, unea iritsi da!
- Aukera zuzena jakinarazten da, idazlearen intentzio poetikoa azaleratuz.
- Asmatu duten talde guztiek puntu bana irabaziko dute. Puntuazioak eguneratzen dira, taldeen aurrerakuntza erakutsiz.
- "Kabinan sartzeko" hurrengo txanda da. 5 testu irakurtzen dira kabina-geltoki bakoitzean.

**3. Amaiera:**

Geltoki guztiak bisitatuz gero, bakardadearen mapa osatuta dagoelarik, pasarteak amaitutakoan puntu gehien lortzen duen taldea irabazle ateratzen da.

# Testuak

## 1

Euskal Herrian ardo  
txartel guztietako  
asko edaten da,  
ardoa edan egin behar delako  
eta zorionez ardo  
-zale garelako.

(Eta [ ] hasita dago)

Euskal Herrian ardo  
Herriko bat badago;  
baina Herrirako  
Herrian sortzen den ardo  
ez nahiko ardo.

(Eta [ ] bukatzen dago)

Bitatik bat dago:  
Herriko mahastiak gehiagotu  
ala  
kanpoko ardoz baliatu.

(Eta [ ] hor dago)

Hirusta:

- liburua
- kontua
- poema
- ipuina
- partida

## 2

Txakolin hondar hau  
airean dudala,  
Herriko ardoari

nahi diot kantatu.  
Mahastian goratzen dut  
gorrinarekin borrokan;  
dolareko nahigabe  
gorrien harrian,  
upeleko ilunpe  
hotz eta luzean  
eta ontzi honetan,  
jadanik airean,  
jadanik txisparen  
poza dizdizari  
duen ordu honetan.

Gora txakolina  
eta damaidan poza  
eta pozaren hitza  
eta hitzaren bizitza  
eta bizitzaren bitsa  
dugun bizi-nahizko  
bizi gaituen [\_\_\_\_\_].

Hirusta:

- arnasa
- gogoa
- ihintza
- gaitza
- egarria

3

Baxuen deiadarra,  
baxuen beharra,  
baxuen negarra,  
baxuan xehatzen da;  
herri baxu hau baxu  
hiltzen den bezala.  
Baina ni baxuekin.

Baxuena delako  
nire herriko lurra.  
Herri bat bizi dut,  
herri zahar jatorra,  
herriaren gerri  
eta haren zuztarra;  
inoiz ez du kendu  
laneko atorra,  
inoiz ez du lortu  
nahi lukeen apurra;  
bizitzen da eta hiltzen  
eta maite du lurra  
eta itotzen dute  
eta agertzen du lorra  
eta ari duen [ \_\_\_\_\_ ]  
ez doa inora.

Hirusta:

- negarra
- diharra
- beharra
- kazkabarra
- zaparrada

4

Zerbait doa sortzen  
Euskal herri honetan,  
Euskal herri honetan,  
jatortasun zainetik  
turrusta narotan;  
Zirriparra sumatzen  
dut askoren baitan  
ohikeriazko uharkaz  
dakarren borrokan.  
Euskal aro berri bat  
ez al dugu [ \_\_\_\_\_ ]?

Hirusta:

- eman

- bertan
- finean
- behar
- honetan

## 5

Doinu zahar baten inguruz dator  
euskal kantuen mezua  
hitz eta doinu bi-biek dute  
osatzen gure salmoa  
herri-kantuen ahaire artean  
ikusi nuen mundua  
ipuinak ziren edo kondaira  
edota fruitu santua?  
haien oihartzun eraginzalez  
erein zidaten barrua.

Geroztik erne eta hazi zitzaidan  
lore gorri bat ariman  
hemen daramat hemen bizi dut  
irteten zaidan kantuan  
gerrako garrek ez zuten erre  
Gernika kixkarratuan  
izotzak arren gordinik dago  
ondoko giro nahastuan  
gogorragoa giroa-eta  
[ ] orduan.

Hirusta:

- indartsuagoa
- gorriagoa
- ahulagoa
- biziagoa
- argiagoa

## 6

Kaiolan jaio ziren

txori txoriburuek  
askatasuna behar  
omen zuten aurren.  
Eta askatu zituzten.  
Baina nola ez zekiten  
alerik bilatzen,  
goseak hil zituen;  
eta nola ez zekiten  
hegaz baliatzen,  
katuak jan zituen;  
eta nola ez zekiten  
elkarri laguntzen,  
ez ziren defenditzen;  
eta nola ez zekiten  
batera ibiltzen,  
sakabanatu ziren.  
Gero  
kaiola zabaldu zienak,  
[ ] luze batez,  
barre egin zuen.

Hirusta:

- hasperen
- karkarkar
- jajaja
- irrintzi
- aiaiai

7

Guk dakigun egia bat  
sua bezalakoa da  
eta  
ezin ipini paperean.

Periodiko paperak,  
esaterako,  
ez du balio  
sua biltzeko.

Baina egiak  
begiak ere

[ ] ditu.

Hirusta:

- ixten
- bizitzen
- hiltzen
- erretzen
- bustitzen

8

*Bladi Otero-ri*

Gure egia  
geure Herria da  
Herri bezala bizi nahi  
dugun egarria.

Zenbatak  
ez du zerikusirik.  
Eskubidean  
aurkitzen garenok  
daukagu bakarrik  
arrazoia eskutik.

Herritasuna  
saldu dutenek  
edo saltzeko gertu  
daudenek,  
sal dezatela.

Baina  
nahi ez dugunok  
gaitzela  
gure eskubidean  
errespetatuak.

Hor duzu [ ].

Hirusta:

- Erronka
- Garaia

- Bakea
- Legea
- Kondaira

## 9

Baina  
oraindik euskaraz  
esango dizkizut  
zerbaitzuk,  
    ez baita  
    oraindik  
iraungi bidea.  
Eta esango:  
    —Itsaso  
ostetik jaikiko  
zaigu biharko  
eguna,  
    olatu  
-begiko sehaska eraso  
    hartatik  
olatu-eraso  
lorraren gaineko  
ganbara-sabaian  
    haizea  
    hartzeko.  
Eta esango:  
    —Iloba  
txikiak  
    euskaraz  
aditzen du, nahiz eta  
[ ] Labairu karrikan jaioa  
izan.

Hirusta:

- Baionako
- Bilboko
- Iruñeko
- Madrilgo
- Mauleko

## 10

Gizaldi askoren  
eta askoren eta askoren  
ezpaineko lore,  
bihotzeko garra,  
begiko leiarra,  
buruko zidorra,  
tankera,  
kantua,  
hizkuntza,  
euskara  
itzaltzen doa  
urrutiko urre  
-hondar bat bezala,  
esku nagi batzuek  
bertan behera galtzen  
erraz utzi duten  
urrezko kometa  
utzi bat bezala,  
urruti geratzen  
hedatzen  
ari da  
lorea,  
sugarra,  
leiarra,  
zidorra,  
[ beharra\_\_\_\_\_].

Hirusta:

- garaia
- indarra
- beharra\_\_\_\_\_
- izarra
- giharra

## 11

Errazera goaz.

Eta, errazenera.  
Azkenean folklore  
hutsa izango gara:  
geure akordu bat  
baina inondik ez geu.  
Herri zahar bat bazen,  
halako ohiturak zituen...  
eta, ipuin bat gehiago.  
Gure ura osinaren  
pitzetatik doa,  
lurruntzen dihoakigu,  
bertan behera agortzen.  
Osinaren neurriak,  
argazki eta beste  
oroigarri batzuk  
biltzen ditugun artean,  
osina, zingira  
bihurtzen doa.  
Osinaren arrazoi den  
urez  
ez gara axolatzen.  
Eta esango dute:  
Bizitza urak zuen  
eta ura zuten bizitza;  
ura agortu ahala  
[ ] egin ziren.

Hirusta:

- agortu
- indartu
- lehortu
- kiskaldu
- pitzatu

## 12

Arratsaldea, kolore gorriz,  
hiltzera doa, kolore horiz,  
hiltzera doa, kolore hautsiz,  
hiltzera doa, zerutik jausiz,

jadanik zurbil,  
margul jadanik.  
Arratsaldea  
hiltzera doa,  
eta, hiltzen dagoena,  
neure egun bat da.  
Zelako antza  
nire egunaren arratsaldeak  
eta iluntze honek.  
Igaro da nire zerbait  
harantzagoko mugara,  
eta harantzago nago,  
lehen baino harantzago,  
jadanik gauaren  
argi ilunezkoan.  
Jadanik muga honetan  
izarrek ez diostate  
pozezko barbarik;  
fede ilunaren argi  
iluna dut bakarrik  
eta itxaropenaren  
itxaropen-eguna  
oraindik [ ] dago.

Hirusta:

- ez
- ilun
- beltz
- bertan
- muga

## 13

Eguzkiz eta itsasoz  
igeri joan naiz.  
Itsasoko landak  
bai landa bigunak!  
«Zer liho-soraa»  
zioen asabak.

Zer haragi leuna  
duen itsasoak.

Zangoei, besoei  
eraginez, labain  
irristan joan naiz.  
Zangoei, besoei,

eraginez, urak  
leun hartzen ninduen.  
Bazidan bizkarra  
aparrez gozatzen.  
Baninderabilen  
jaso eta erantsi,

ohe leun batean  
amak ume bat lez,  
amak ume bat lez  
ninderabilenez,  
[ ] ateraz,  
uretan murgilduz.

Hirusta:

- eguzkitara
- olatuetara
- itsasora
- poemak
- arrainak

14

### *Oteitzari*

Begiek dakustenetik  
bihotzak nahi lukeenera  
zubi zahartu hau luzarazteko  
nahi izatea gutxi da.

Gaztainadiak bezala  
gaitzak jo digun herria  
urritzen doa,  
gaztainadiak  
bezala [ ] utzia.

Hirusta:

- urritzen
- alperrik
- hiltzen
- bizitzen
- bakean

15

Nik ez dut orain idazten  
paper-saskirako baizen,  
agian, noizbait, zeozer.

Zer paper-saski eta sasko?  
Euskal Herri ez al dago  
paper-saski, hutsik asko?

Entzun nuen eta pentsatu.  
Herriak ninduen ukitu.  
Herriak eta egiak  
guztiok behar baikaitu.

Tailer batean nengoen,  
Oteitza baten ondoan.  
Hitzak apalki entzun nizkion  
eta asmo bat hartu beroan:

Agintzen dizut, egia,  
idazten dudan guztia  
tailer honetara jasoko dizut.  
Gaurtik hemen dut [\_\_\_\_\_].

Hirusta:

- argia
- begia
- herria

- kabia
- saskia

## 16

Hutsune nabarmen bat  
geratu da frontoian,  
estali gabeko  
frontis betean;  
eta hutsuneari  
darion isiltasun  
nabarmenago bat,  
mendietarainoko  
inguru guztian.  
Ezin zitekeen  
hutsune hori baino  
ezer handiagorik  
kabitu harrian.  
Hutsune hori da  
Jurgi eskultore  
handiak utzi digun  
irudi handiena,  
eta nabarmenena.  
Euskaraz egun esan  
zitekeen hitzik  
handiena jarri du  
frontisean zutik.  
Euskaraz egun esan  
zitekeen hitzik  
[ ] jaso du  
mendiko frontoitik.

Hirusta:

- ozenena
- garbiena
- sakonena
- isilena
- ederrena

Lurrean  
etzan zen  
          eta  
etzan zitzaion  
lurrari.

Zen guztiz etzan zitzaion  
                          eta  
                          lurra  
                          ur

egin zitzaion.  
Gau eta egun  
egon zitzaion kontran,  
arnasatan,  
oinatz bakoitzean  
barrentzen zitzaiolarik,  
gozatzen zitzaiolarik  
oihartzunetan.

Lurrari etzan  
zitzaion eta  
horregatik daki  
lurra nolakoa den,  
lurrak zer duen  
[          ] abandonatutako  
lurra eta bien  
lurrean.

Hirusta:

- zeruak
- gizonak
- herriak
- itsasoak
- mendiak

## 18

Errekak harkaitzetara  
jasotzen du zarata,  
eta harkaitzek, oihartzuna  
harritik airera.

Errekaren zarata  
sartu da Arantzazun.  
[ ]-hotsa da  
daridan ahotsa.

Hirusta:

- Zintzarri
- Oihartzun
- Sirena
- Abere
- Artzai

## 19

Hau ez da irudipen bat,  
hau ez da oroitzapen bat,  
baizik sentimendu bizi bat. (Bitan)  
Iturrien eta landareen,  
narrastien eta lau hankakoen  
eta hegaztien eta gizonen  
Ama Lurraren bizizko  
eragin bizkorra da hau.  
Hau ez da irudipen bat,  
hau ez da oroitzapen bat,  
baizik sentimendu bizi bat.  
Oskarbipeko  
udalehen-arratsalde honi  
erne beharraren usaina dario  
itxaropen berri baten  
[ ] ziur bat bezala.

Hirusta:

- erantzun
- mandatu
- aginte
- amets
- bulkada

20

Hau ez da irudipen bat,  
hau ez da oroitzapen bat,  
baizik sentimendu bizi bat.  
Lur, oinen oinarri zatzaizkigun lur eder,  
gure Herria eusten duzun lur ona,  
zure gainean jartzen dut eskua  
eta bihotz apalez bedeinkatzen zaitut.  
Hau ez da irudipen bat,  
hau ez da oroitzapen bat,  
baizik sentimendu bizi bat.  
Euskal Herriko arratsalde hau  
misterioz egina da dena  
eta badoa udaberriko ura bezala  
lehenengo loreen artetik aurrera.  
Hau ez da irudipen bat,  
hau ez da oroitzapen bat,  
baizik sentimendu bizi bat.  
Oi, nahi askatzaile,  
mendien osteko argiak argitua,  
ilargi zutean  
harkaitz gorri bat bezala,  
agurtzen dut zure bizkarraren [\_\_\_\_\_].

Hirusta:

- indarra
- zama
- zabalera
- lana
- ordaina

## 21

Lurrean bai,  
lurrean bizi naiz.  
Lurrean dut bizi gaia  
eta bizi lekua.  
Lurrean zutitzen naiz goiz oro  
lurreko arbolen artean, lurreko gizonen artean,  
lurreko abereen artean,  
eguzkiaren, euriaren edo lainoaren  
azpitan aritzeko.  
Lurrean bizi dut  
lurraren existentziaz  
ohartarazi ninduen  
bizitza;  
lurraren zurrumurruetara  
begi eta belarri zabalez  
ernai jartzen zaidan bizitza;  
lurreko existentziaz  
kezkarazten nauen bizitza;  
pentsakor eta aztertzaile  
zerura begira geratzen zaidan bizitza.  
Lurrean,  
abioiek dardaratzen duten aire honen pean  
bizi dut lurrera [\_\_\_\_\_].

Hirusta:

- begira
- galdera
- arima
- karga
- hegan

## 22

Harriaren arreba

lurra hartu dut esku barruan,  
euskaldunen ama lur,  
uraren kideko lur,  
suaren sostengu lur,  
zuraren orpoko lurra.

Lur hotza, lur beroa;  
lur hila, lur bizia;  
lur nabar, lur argia;  
lur astun, lur arina;  
lur samin, lur atsegin;  
lur gogor, lur gozatsu;  
lur iraindu, lur maite;  
lur jator samurra.

Lurra hartu dut eskuan  
muin emateko,  
besarkatzeko,  
bularrean hertsatzeko  
luzaro.  
Eta gero,

neure burua baino  
gorago jasoz eskua,  
burutik behera utzi dut  
sorbaldaz behera jausten,  
neure lur guztiz behera,  
lurrezko bataioaren  
[\_\_\_\_\_].

Hirusta:

- otoitzean
- seinaletan
- imintzioan
- paganoan
- profanoan

Zuek ez badakizue zein politikarena den arbola, ez kezkatu: nik argituko dizuet zein politikarena den arbola. Begira, arbola bat naiz ni. Ni lur honetan bizi naiz. Sustraiak lur honetan barneratzen ditut. Lur honek berea ematen dit, hor daukana, disolbatuta daramana, lurpean heldua. Horretatik bizi naiz. Hori da inbaditzen nauen substantzia. Adarrak gora igotzen zaizkit. Nire itxaropena eta etorkizuna eta ilusioa gorantz loratzen dira. Nire parean dagoen zerua nirea da. Eta itxaropena ematen didan zeru horretatik bizi naiz. Birikei oxigenoa ematen dien aire horretatik. Ni naiz arbola. Ez ahaztu ni hori naizela, arbola. Eta orduan esaten dudana da zer gertatzen den nire arbolatasunarekin, zer gertatzen zaion arbola honi. Hara: arbola honi lurra ukatzen zaio. Airea ukatzen zaio. Zerua ukatzen zaio. Hil egiten dute. Eta orduan arbola hau [ ] egiten da. Hori da dena.

Hirusta:

- loratu
- kraskatu
- erori
- matxinatu
- ihartu

## 24

...niri ez zait inoiz gustatu, ez gutxi eta ez asko, neuk nolabait esperimentatu, edo desiratu, ez ditudan gauzez idaztea. Gutxienez beti erantsi nahi edo behar izaten diot neure zera, nahiz eta ideiak inorenak izan. Apropiazio bat bezala egin behar izaten dut horrena, fetitxe bihurtzeko edo, niregan influentzia eduki dezan. Nik idazten dudan horrek, neu ondu nazan. [ ]. Neu alda nazan. Nik hura egin eta berak ni egin.

Hirusta:

- Landu
- Idatzi
- Irakurri
- Sentitu
- Sortu

## 25

BIGARREN GUTUNA BITORIANO GANDIAGARI (Itxaro Borda, *Itzalen tektonika*)

Urbiatik jaistean

Zuk ere goretsi zenituen txoriak  
Entzuten ditut:  
Zuhaitzen itzaletik nabil  
Eta elorriak loretan ikustean  
Esker onezko salmoak  
Kantatzear nago.

Urbiatik jaistean  
Ongi sentitzen naiz, pagoen maldan  
Soseguan bezala,  
Arriskutik kanpo, elorri artean  
Etzateko gogoz:  
Esker onezko salmoak  
Kantatzear nago.

Urbiatik jaistean  
Goribar baserriko alabaren soa  
Gurutzatzen dut.  
Errotik beretik bizitza  
Etengabeko ihardukia dela  
Sumatzen du elorriak:  
Esker onezko salmoak  
Kantatzear nago.

Urbiatik jaistean  
Lantzurdak eta hodei eskuzabalek  
Harrapatzen naute  
Eta elorri sasitzarretan aterpea  
Bilatzen dudanean  
Esker onezko salmoak  
Kantatzear nago.

Urbiatik jaistean  
Munduz eta bakartasunez  
Hanturik nator irri xoxo batekin.  
Opari-dendan Elorri erosi dut  
Eta bi [ ] itxurako brotxa  
Bilobentzat, zorte on ametsez:  
Esker onezko salmoak  
Kantatzear nago.

Urbiatik jaistean  
Basilikan sartzen naiz isilik  
Elorri emankorra eskertzeko.

Arantzazuko amari ene dei mutua  
Luzatu orduko fraidea ondora  
Etortzen zait: *ixten dugu...*

Hirusta:

- tximeleta
- mahasti
- eguzki-lore
- elorri
- otalora